

## Adierazgarria

TXILLARDEGI



**LANDSBERGISEK** hauteskundeak galdu ditu Lituania, Behinola Ortegak hauteskundeak galdu zituen Ni-

karaguan. Mekanika teorikoari datzekion hizkera guk ere erabiliz, jarrera "antimetrikoak" topatu ditugu egun hauetan.

Batzuek hau diote: «Bazen garaia Landsbergisen eskuindarkeriei eta balentriai amaiera emateko. Jabetu egin da Lituaniako herria, eta, hitz batez, lituanier *herriak berak* bota du Landsbergis, Lituania eta Nikaraguan gertatutakoak aldera ezinak dira. Nikaraguan *kampitakako* presio politiko eta ekonomikoen bitartez lortu zen herria sandinisten kontra jarzea, eta hauek hauteskundeak galtzea».

Beste batzuek, berriz, beste hau diote: «Lituaniako herria Landsbergisen alde dago. Baina *kampitakako* presio politiko eta ekonomikoen bitartez, jendea nazkatzea lortu dute moskuzaleek. Ezin dira oraingo gertakari hau eta Nikaraguan gertatu zena alderatu. Nikaraguan herria zegoen leporaino sandinisten jokoaz: eta azkenean, hauteskunde ezin garbiagotan, *herriak berak* bota zuen Ortegak».

Faktore eragile nagusiak bi baldin badira, matrixeak lau gune ditu, eta ez bi: eta beste bi aukera daude: a) bi kasuotan *herriak berak* lortu du aldatzea; b) bi kasuotan *kampitakako* presioen ondorioz, aldatzea gertatu da.

Korapilo nahasia, jakina: erantzun ximpleegiak nekez sinesgarri.

Hots: 'a' eta 'b' azalpen bikunek oso 'prentsa txarra' bide dute gure artean. Hemen Landsbergisen alde mintzo direnak, Ortegaren kontra mintzo dira. Eta Ortegaren alde daudenak, Landsbergisen aurka.

Agian egia dute. Eta zirt-edo-zart egin behar da ausarki, erdibideko 'belaxkeriak' alde batera utziz.

## Biberoiko euskaldunak

ANJEL LERTXUNDI



**APARTEKO** kasu bitxi batzuk kenduta, biberoiari esker ginen atzo arte euskaldun. Jende asko dabil gaur euskara ikasi duena, sekulako ahalagien

egun ondoren. Gure gauro bide honek bideago dirudi garai ez oso aspaldikoak baino. Bo. Bedi halaxe.

Baina sarri egin izan diot neure buruari —eta egin nahi diot edozein euskaldun zahar sintzerori— galdera: —Tunante malapartatu! Trantze berean egingo al huke esfortzu hori? Euskara jakingo ez bahu, ikasiko al huke gaur nazionalizat definitzen duan hizkuntza?

Ezezko erantzuna ez luke inork bibaka eta txaloak joz sarituko, baina ez nuke nik behintzat erantzunaren kurara ukatuko. Erantzuna baiezkoa balitz, berriz, zilegi litzaidake pentsatzea: Benetan ari haiz, ala ziniko gezurtero bat haugu?

Halako sospetxarik gerta ez dakigun, formula daiteke interesatzen zaiguna beste modu sibilinoago batez: Hi, biberoiko euskaldun! Prest egon al haiz hiru euskara hobetzerakoan, euskaldun berri batek euskara ikasiz egin ohi duen ahalaginarean laudena egitera? Erantzunak berak zertifikatuko du egia, gezur sofistikatuena ere ipurdi bistan geratuko da eta erabilitako hitzen trazioiz. Lekutan geratuko da hainbaten aho berora, eta ez pentsa idazle jentilajear berak ere —dagokidanagatik ere badiot— gaidituko lukeenik gezur detektatzailearen testa!

Ai, euskaldun berriei esker kantitatean irabazti duguna, biberoiko euskaldunen erruz kalitatean —eta kantitatean— galdu izan ez bagenu! Demagun euskaldun berri batek aurpegiatzen digula gure jokabidearen faktura. Gustura ikusiko nuke eszena, video batean grabatuta.


## HEMEROTEKA

●egin

### Fiskalak alde bat aukeratzeko du

Egitura fiskalak funtzionamendu hierarkikoa du. Aginduak agindu dira, eta bestetan, nahikoa da iradokitze hutsa. Horrela, txanpon makinen kasuan zehar, horrekin beste alderdi ahaltsu batek, EAJK, zerikusirik baitzuen, fiskala «entzule» gisa aritu zen.

Fiskaltza Nagusia argitu gabeko arazo gehiegitan murgilduta dauden Gobernuari eta PSOEren egiturari laguntza ematen ari zaie. «Estoldak», ustelkeria politikoa, hauteskundeetarako makina ahaltsuen finantzaketa zikina, sistema judizialaren erabilera aurkari politikoaren kontra, ez dira axaleko gaiak. Estatu arazoak baizik. Hain jarrerak alderdikoia hartu duten fiskal gorenen implikazioa ezkutatu behar denaren beste argibidea da. Zuzen daude fiskal taldeak kezatan direnean, baina hutsa pertsona zehaztuz egon beharrean gehiago dago instituzioan,



GALLEGO & REY / DIARIO 16

hala nola ikerketa judizial hutsaren gaitetik ikerketa fiskalari eta polizialeari lehentasuna ematen dien sistema horretan.

EDITORIALA



### Trazaketa aldatze garestia

Roman Sudupe Gipuzkoako Azpiegituretako diputatuak bere adierazpenaren bidez agerian utzi du lurralde horretako tartean Iparraldeko Autobidearen trazaketa aldatzea izan zen amore ematearen ondorio nabarmenen ar-

tean etsigarrietako bat dena, hain zuzen obra erruz garestituko dela —ia 7.000 milioi pezeta instituzioek onetsitako A-2 proiektuaren kostuaren gaitetik—, obra gauzatu ahal izateko egin behar diren aldatzen ondorioz.

Diputatuaren arabera, tunel bat luzatu beharko da lurrean faila bat aurkitu baita eta hiru zubibide gehiago eraiki beharko dira. Azalpen argi-garri honek baieztatzen du lehendik ere ezagun zena: 'San Lorenzo' alternatibak, azken unean biolentoen eta hauen bide-lagunen babesa lortzea ahalbidetzearren

mahukatik atera zenak, ez zuela gutxieneko zehaztasuna izan zezakeen inolako azterketa teknikorik, eta, era berean, nola instituzioen duintasun demokratikoa defenditu behar zutenek hala A-2 baztertzeko ingurugiro mailako atzakia jartzen zizutenek ez zutela aurreko hobetuko zukeen alternatiba baten inguruan adostasuna lortzeko asmorik, norik bere etekin politikoa ateratzeko asmoa baizik. Hain gauza nabaria elkarrizketaren garapentzat aurkeztu izanak agerian uzten du auzi deitoragarri honetan lortutako nahasmendua.

EDITORIALA

## LUZENDARIARI

### Txingudi babestu nahi al dute?

«El Ayuntamiento no está poniendo pegamento un acuerdo». Horrelako baieztapen surrealistarekin bukatzen ziren Irungo gobernu taldeak eginko deklarazioak 'Txingudiko Badiaren Babespena eta Berreskuratzeko Plan Berezia' dela eta. Jakina denez plan hau Eusko Jaurlaritzak egin du Gipuzkoa eta Lapurdiko itas padura nagusia gordetzeko.

Udalak ez du oztoporik jartzen. Bakarrik zonalde batzu (Behobia, Alunda eta Lastoalako terrazak) proiektutik al utzi nahi ditu eta beste zonaldeetan (Plaiandua eta Oxin-biribilen), Udalaren partehartze handiagoa nahi du, besterik ez. Horrela gauzak, zer gelditzen den babesteko? Ba Bidasoako iriak, besterik gabe, hau da, hasierako proiektuaren ehuneko hamarra gutxi gora-

behera. Eta hori nahiz eta izan Jaurlaritzak, Diputazioa eta Hondarribiko Udalarekin batera joan den azaroen sinatu zuten akordioa zeinean zonalde guzti hauek jasotzen ziren babesteko helburu gisa. Berritoren Irungo Udalak ez du betetzen sinatu duena.

Udalak ez du oztoporik jartzen. Horregatik oraingoa da badi babesteko egiten den hirugarren proiektua. Lehenengo 1983. urtean, bigarrena 1991n eta hirugarrena aurtengoa egina izan dira.

Bitartean, eta Gobernuak inziatibak Udalak oztopatzen ez dituenari esker, 1991. urtean Txingudin inbertitu behar ziren laurteen milioi pezeta baino gehiago galdu ziren. Gauzek horrela jarraitzen baldin badute, agian aruten berdin-berdin gertatuko da.

Ikaragarri eta beldurgarria da Udalaren jokarea; hamar urte igaro ondoren eta hainbeste ikerketa egin eta gero, noski diru pu-

blikoaz ordainduak, oraindik ez da babestu ezta metru karratu bat ere ez; alderantziz denboran honetan zonalde garrantzitsuen degradazioa onartu da edo bestetan era basatiar ekin egin da.

Zuzena da proiektu hauek finantzatzeko instituzioen laguntza eskatzea. Lotsagarria dena da gestio eta planifikazio txar baten ondorioz Plaianduin, Oxin-biribilen edo Behobian berreskuratzeko lanak denon artean ordaindu beharra eta askoz gehiago hori argumento bezala erabiltzea berritoren Txingudiren babespenarako beste proiektu bat geldiarazteko. Eskerrak Udalak oztoporik ez duela jartzen!

TXINGUDIREN ALDEKO KOORDINADORA-CODA

Irun (Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA



### Argia eguna

Azaroaren data gaur hogeitabia Argia eguna da egun bat haundia euskal prentsa munduan zu aintzindaria izen eta izanez lotura garbia lehen zerukoa orain lurreko argia.

SANTI ZABALA 'LEXO'



Batzorde Parkeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORRELADE

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URUA

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSLAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Eredakzio eta Tailerra: ANTTA S.A. Industriaidea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
 Egotza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakitua, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
 Araba: San Antonio, 20-1 erler. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
 Nafarroa: Irate Monastegia, 45-13 esk. / (Irritzi dorretai / 31011 Iruña / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77  
 Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1 eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
 Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Postakutxatila. / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11